



“Eskatu izan didate Sarrionandia elkarrizketatzeko telefonoa”

Goizalde Landabaso I
Korte bat, mesedez

Inork ez zigun esan irratiko euskaldun izatea zein nekeza den.

ARITZ GALARRAGA
Argazkia: Iñigo Azkona

Azkenean, aurkitu dut: hemen Bilboko euskalduna!

Zorionez asko gara euskaldunak Bilbon. Luzatzen dizut hiria bisitatzeko gonbitea, zizerone bikaina naiz gero! Eta koaderno handia ekar ezazu aurkitzen ditugun euskaldunak apuntatzeko, harrituko zaitu.

Beste hau izan zitekeen hasiera: hemen Radio Euskadiko euskalduna!

Hemen ere esan behar dizut euskaldun bakarra ez naizela, zorionez. Egia da gero airean beharbada ez dela igartzen, euskarak leku gehiago izan beharko lukeela, bai; baina nik barruko harremana euskaraz egiten dut asko-ekin.

Bietan ere itsasoa goldatzen, noski.

Euskaldun harroa sentitzen naiz, ez arraroa. Euskaldun militante izatera eraman nau bizitzak, eta ametitzen dut. Ez dut erraz amore ematen. Batzuetan gogorra da, milimetroko garaipenak lortzen dira. Garaipenak edozelan ere, eta hori da garrantzitsuena.

Ezizena aspaldi jarriko zizuten: *La vasca*.

La vasca inoiz esan didate, baina gutxitan. Garai batean “aborigen” hitza erabiltzen nuen, umorez.

La vasca que ríe, beraz.

Bai, nik umore handia daukat. Denborarekin uste dut apur bat garraztu zaidala, baina munduari barre egiten diot askotan, eta

horrek salbatzen nau. Umore barik hau, eta mundua oro har, eramenezina litzateke.

Idatzi izan duzu irratirako euskaraz aritzearen zailtasunez.

Hau istorio amaibakoa izan liteke: prentsaurrekoetan borrokatu behar duzu euskaraz adierazpenak lortu, euskaldunak aurkitu, informazioa profesionaltasunez jasotzeko, gutxienez, beste hizkuntzetan lan egiten duten kazetariak adina.

Liburu aurkezleen artean Sarri nor den galdeztera iritsi zaizkizu...

Bai, eta bera elkarrizketatzeko telefonoa eskatu izan didate. Erdal munduarentzat euskarazko mundua Jupiter da, eta okerrena da, maiz, Burundiko kultura hurbilago sentitzen dutela. Unibertso oso bat galtzen dute eta oraindik ez dira jabetu.

Euskarazko mundua Jupiter eta euskaldunok estralurtar.

Estralurtar izateak ere badauka bere xarma. Gustatuko litzaidake euskalduna estralurtar ezaguna balitz, hori ondo legoke.

Ikusiko ote dugu guk Radio Euskadirik beharko ez dugun eguna!

Nahiago nuke hainbeste euskaltegi eta bar-netegi beharrezkoak ez diren eguna ailegatu balitz. Horrek izugarri poztuko ninduke. Eta denborarekin ikusiko dugu, seguru nago. ■